

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

Ebazpena, 2016eko urriaren 6koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, "Oyon-Oioneko hondakin uren araztegia handitzeko proiektua" jendaurrean jartzeko izapidea ebatzi eta behin betiko onespena ematen diona

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak 2016eko abuztuaren 1ean emandako Ebazpenaren bitartez, "Oyon-Oioneko hondakin uren araztegia handitzeko proiektua"-ri hasierako onespena eman zitzaion eta kontsultarako jendaurrean jarri zen.

Ebazpen hau ALHAOn argitaratu zen 2016ko abuztuaren 10ean eta agerian egon zen. Behin jendaurrean jartzeko epea bukatuta, ez da alegaziorik aurkeztu.

Halaber, proiektua aztertu eta aldeko txostena emanda dago, teknikoki zuzena dela eta alo-rreko legeri berezia betetzen duela egiaztatu da, bai eta Sektore Publikoko Kontratuen Legea-ren testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 123. artikulua eta indarrean dauden bestalako legezko xedapenak.

2010ko ekainaren 29ko Administrazio Kontseiluaren saioan emandako eginkizunen eskuordetza betez, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legeko 13 f) artikuluari jarraituz, lege bereko 15 m) artikulua eta Agentziako 7.2 p) artikulua arabera, zuzendari nagusiari dagokio proiektu honen onspena.

Hori aintzat harturik, jendaurrean jartzeko izapidea ebatzi eta behin betiko onspena eman behar da.

Horiek horrela, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gai-nontzekoak ikusirik,

Ebazten dut

Lehen. "Oyon-Oioneko hondakin uren araztegia handitzeko proiektua" jendaurrean jartzeko izapidea ebaztea.

Hirugarren. "Oyon-Oioneko hondakin uren araztegia handitzeko proiektua"-ri behin betiko onspena ematea.

Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legeko 6.4 artikuluari jarraituz, ebazpen honen kontra jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen eta Lurralde Politikako saliburuari, ebazpena jakinarazi eta argitaratu egunaren biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 6an

Uraren Euskal Agentziaren Zuzendari Nagusia
IÑIGO ANSOLA KAREAGA